

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

23/2026 Foru Agindua, martxoaren 26koa, onesten duena kulturaren edo aisialdiaren eta astialdiaren arloko irabazi asmorik gabeko elkarteei, kirol federazioei, kirol federazioen elkarteei, ikasleen guraso elkarteei, kirol elkarteei eta ikasleen guraso elkarten federazioei dirulaguntzak emateko deialdia, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen euskararen erabilera eta sozializazioa sustatzeko proiektuak eta/edo jarduerak garatzeko 2026ko ekitaldian

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko Euskararen Foru Zerbitzuak honako hauei dirulaguntzak emateko deialdia egitea proposatzen du: kulturaren edo aisialdiaren eta astialdiaren eremuko irabazi asmorik gabeko elkarteak, kirol federazioak, kirol federazioen elkarteak, ikasleen guraso elkarteak, kirol elkarteak eta ikasleen guraso elkarten federazioak, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen euskararen erabilera eta sozializazioa sustatzeko proiektuak eta/edo jarduerak garatzeko 2025eko abenduaren 1etik 2026ko azaroaren 30era.

Aztertu da Euskararen Foru Zerbitzuaren txostena.

Horrenbestez, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea kulturaren edo aisialdiaren eta astialdiaren arloko irabazi asmorik gabeko elkarteei, kirol federazioei, kirol federazioen elkarteei, ikasleen guraso elkarteei, kirol elkarteei eta ikasleen guraso elkarten federazioei dirulaguntzak emateko deialdia, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen euskararen erabilera eta sozializazioa sustatzera bideratutako proiektuak eta/edo jarduerak garatzeko. Deialdi hori 2026ko ekitaldian arautuko da, eta foru agindu honi eranskin gisa (deialdia) eta I. eranskinetik V. eranskinera (formularioak) erantsi zaio, 150.000,00 euroko zuzkidurarekin.

Zenbateko hori ehuneko 20 handitu ahal izango da, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21.2.b) artikuluan ezartzen denaren arabera.

Zuzkidura hori Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautuko da (2020ko uztailaren 27ko ALHAO, 84. zenbakia.), zeinak dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak onartu baitzituen.

Bigarrena. Deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldirako aurrekontuko "25201. G/335251/48100253 Elkarte eta kolektiboentzako dirulaguntzak" aurrekontu-partidaren kargura ordainduko dira (150.000,00 euro).

Hirugarrena. Organo eskudunak, Balorazio Batzordeak proposatuta, kasuan kasuko ebazpena emango du gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez badu, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua eta hurrengoaren arabera. Bestela, bi hilabeteko epean administrazioarekiko

auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan jasotakoaren arabera.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 26a

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria
JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO

ERANSKINA

Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen euskararen erabilera eta sozializazioa sustatzeko proiektuak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzen deialdia, 2026ko ekitaldirako. Dirulaguntzak emango zaizkie kulturaren edo aisialdiaren arloko irabazteko xederik gabeko elkarteei; kirol federazioei; kirol federazioen elkarteei; ikasleen gurasoen elkarteei; eta ikasleen gurasoen elkarten kirol elkarte eta federazioei

Lehenengoa.- Helburua eta xedea

Deialdiaren xedea da 2025eko abenduaren 1etik 2026ko azaroaren 30era bitartean Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen euskararen erabilera eta sozializazioa sustatzeko proiektuak edo jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak ematea, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuan xedatutakoaren esparruan. Dekretu horrek dirulaguntzak emateko Diputatu Nagusiaren Sailaren norgehiagoka prozedura arautzeko oinarri orokorrak onetsi zituen.

Laguntza horien helburu nagusia, beraz, gizarte programak eta jarduerak babestea da, euskal hiztun aktibo eta ahaldunduekin komunitatea sendotzeko eta zabaltzeko; hiztun berriak sortzeko eta erakartzeko; eta lurraldean euskaraz bizitzeko aukerak bermatuko dituen gizarte zuzen eta justu bat eraikitzeko baldintzak sortzen jarraitzeko, Arabako euskara zerbitzuekin batera, euskararen munduarekin eta gainerako gizarte eragileekin elkarlanean, Araban Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Estrategikoan (2025-2029) jasotakoaren arabera.

Bigarrena.- Aurrekontu egozpena

Deialdiaren zuzkidura ekonomikoa 150.000,00 eurokoa da, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko ekitaldiko aurrekontuaren "25201. G/335251/48100253 Elkartentzako eta kolektiboentzako dirulaguntzak" aurrekontu partidaren kargura, eta ehuneko 20 handitu ahalko da, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21.2.b) artikulua arabera.

Emandako dirulaguntzak ezingo du inolaz ere gaingitu eskatutako zenbatekoa, ezta proiektuaren diruz lagun daitekeen guztizko aurrekontuaren ehuneko 80 ere. Erakunde bakoitzeko gehieneko 10.000,00 euroko dirulaguntza emango da. Erakunde bakoitzak proiektu bakarra aurkeztuko du, eta proiektu horrek, aldi berean, hainbat jarduera izan ditzake.

Deialdian onartu ahal izango da Arabako Foru Aldunditik edo estatuko nahiz nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik beste dirulaguntza edo diru sarrera batzuk jasotzea, baldin eta dirulaguntza horien zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, diruz lagun daitekeen guztizko aurrekontua baino handiagoa ez bada.

Hala badagokio, diruz lagun daitekeen aurrekontua doitu ahal izateko, proiektuaren kostua beste dirulaguntza eta/edo baliabide publiko edo pribatuen funtsekin batera finantzatzeko eskatu duen erakundeak Euskararen Foru Zerbitzuari jakinarazi beharko dio erabakia.

Hirugarrena.- Erakunde onuradunak eta baztertuak

Erakunde onuradunak izango dira:

1. Egoitza soziala Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean duten kulturaren arloko edo aisialdiko elkarteak edo irabazteko xederik gabeko erakundeak, publikoak zein pribatuak (federazioetan elkar daitezke).

2. Egoitza soziala Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean finkatua duten kirol federazioak eta kirol federazioen elkarteak, baita kirol elkarteak ere, dagokien federazioan parte hartzen ez badute.

3. Egoitza soziala Araban duten ikasleen gurasoen elkarteak eta ikasleen gurasoen elkarten federazioak.

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuaren bidez onartutako dirulaguntzak emateko Diputatu Nagusiaren Sailaren norgehiagoka prozedura arautzeko oinarri orokorren hirugarren oinarrian salbuetsitakoez gain, honako hauek ere kanpoan geratzen dira:

a) Kuadrillak, udalak, administrazio batzarrak, udal institutuak eta haietan sartuta edo horiei atxikita dauden taldeak eta elkarteak.

b) Ganberak, kooperatibak, kide anitzeko taldeak, sindikatuak eta merkatarien, teknikarien, langileen eta profesionalen taldeak oro har, baita horiei atxikita edo horietan sartuta dauden edo horietatik abiatuta sortu diren talde eta elkarteak ere.

c) Elkarteak, taldeak eta abar, baldin eta horien estatutuetan ez badira sartzen kultura, gizarte, kirol edo euskararen erabilera lehentasunez sustatzeko helburuak, ezta helburu horiek lortzeko programak ere.

Laugarrena.- Diruz lagundu daitezkeen programak

1. Diruz lagundu ahal izango dira 2025eko abenduaren 1etik 2026ko azaroaren 30era bitartean euskararen bidez euskara sustatzeko eta sozializatzeko egiten diren proiektuak.

Jarduera euskaraz egitea ez da nahikoa arrazoi deialdi honetan sartzeko. Honako ezaugarri hauek dituzten proiektuek jaso ahal izango dute dirulaguntza:

– Euskararen erabilera biziberritzearekin lotuta ezagutza eta aktibazioa sortzen duten proiektuak, adibidez:

- Hitzunen konpromisorako dinamikak (mintzalagun, mintza tratuak, gurasolagun, eusle, ahobizibelarri prest, Euskaraldia).

- Hitzunen aktibazioa (hizkuntza biografiak, mintzodromoa, world coffe, euslidersak...).

- Euskararen transmisioan eta erabileran sentsibilizatzeko programak eta/edo prozesuak (Eusfera, Auzoko, Lingolang, Compartimos, Gurasoleku, Lansarean...).

- Hitzunen, monitoreen, kirol entrenatzaileen eta/edo gizarte eragileen prestakuntza eta sentsibilizazio soziolinguistikoa...

– Euskara erabiltzeko gune soziofuntzionaletarako proiektuak, euskaraz hitz egiteko harremanetan jartzeko eta elkartzeko guneak; atzerritarrek eta/edo atzerritar jatorriko biztanleek hizkuntzaren normalizazioan parte har dezaten bultzatzeko proiektuak; euskara erabiltzeko guneak eta familien sozializazio jarduerak sustatzeko proiektuak, batez ere ingurune hurbilean, ingurune linguistikoa aberasten lagunduko duten produktuak, jarduerak eta zerbitzuak eskaintzeko, bereziki aisiarekin lotutakoak. Adibidez:

- Aisialdi eta kirol jardueretan ahozko harremanak eta euskararen erabilera berariaz sustatzea.

- Jarduera ludiko-kulturaletan (herri antzerkietan, hala nola maskaradetan edo antzekoetan) euskara erabiltzeko ahozko harremanak eta berariazko sentsibilizazioa.

- Sozializazio jarduerak, euskara eremu soziofuntzionaletan erabiltzearen bidez.
 - Euskara erabilia familiek sozializatzeko jarduerak.
 - Sozializazio jarduerak, gune soziofuntzionaletan euskara erabilia.
 - Euskararen erabilera egituratzeko prozesuak (euskara planak sortzea, hizkuntza irizpideak, euskara komisioa...).
- Hitzunentzako ikusgaitasun, sentsibilizazio eta hizkuntza indartzeko proiektuak euskararen erabileraren esparruan, adibidez:
- Euskararen erabilerari buruzko sentsibilizazio orokorreko kanpainak eta argitalpenak.
 - Hizkuntza indartzeko eta euskararen inguruan sentsibilizatzeko ikastaroak migratzaileentzat, gurasoentzat, aitona-amonentzat edo lineako elkarriketa saioak (mintza-on, adibidez).
 - Jarduera soziokulturalak eta sozializazio jarduera interaktiboak euskaraz.
 - Elkarten estatutuak, webguneen testuak eta abar euskaratzea.
3. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira diruz lagundutako programaren zuzeneko gastuak, baita programa gauzatzeko beharrezkoak diren langileen gastuak ere.
4. Zeharkako gastuek dirulaguntza jaso ahalko dute, gehienez ere zuzeneko gastuen aurrekontuaren ehuneko 10.
5. Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango, dirulaguntza lortzeari edo justifikatzeari dagokienez, gastu hauek:
- Euskaraz gauzatu arren, euskararen erabilera eta sozializazioa sustatzeko prozedurarik ez duten programak.
 - Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.
 - Ordezkaritza, protokolo, oturuntza eta antzeko beste jarduera batzuen gastuak.
 - Inbertsio gastu direnak. Material ez-suntsikorra eta material informatikoa edo ekipo teknikoak erostearen ondoriozkoak.
 - Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu ahal badira.
 - Euskara ikastaroek eragindako gastuak.
 - Eskola orduetan ikasleentzat antolatzen diren jarduera akademikoak.
 - Eskola egutegiaren barruan, ikastetxeek aterpetxe edo barnetegietan egiten dituzten egonaldiaren sortutako monitorean gastuak.
 - Aterpetxe edo barnetegietako egonaldien edo antzekoen mantentze lanen gastuak.
 - Hezkuntza materiala ekoizteko edo itzultzeko gastuak.
- Era berean, baliabideak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia printzipioari erantzuten ez dioten gastuak jasotzen badira (deialdi hau arautzen duten oinarri orokorrak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuan jasotzen da printzipio hori), adjudikatu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko orduan kanpo utzi ahalko dira.
6. Diruz lagun daitezkeen aurrekontuaren ehuneko 50era arteko azpikontratazioa baimendu ahal izango da, betiere Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen badira.
- Horretarako, erakunde onuradunak azpikontratatu egiten duela ulertuko da dirulaguntzaren xede den jarduera osorik edo zati batean hirugarrenekin hitzartzen duenean. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da erakunde onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera bere kabuz gauzatzeko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak sektore publikoko kontratazioari buruzko araudian kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen ditueanean, hau da, zenbatekoa 15.000,00 eurokoa (BEZik gabe) edo handiagoa denean, hornidura edo zerbitzu kontratuen kasuan, erakunde onuradunak gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, salbu eta diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan ez badago horiek egin, eman edo hornitzen dituen behar adina erakunde, edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada.

Egindako eskaintzen artean aukeratzeko —justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran azaldu beharko dira—, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da egindako aukera, proposamen ekonomikorik onena ez denean.

7. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatuko du igorritako dokumentu guztietan, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua beteta.

8. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuari hasieran onartu zaion muga oinarri hartuta, aldaketak onartu ahal izango dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptu eta zenbatekoetan, nahiz eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuetakoren bat gauzatu gabe gelditu. Aldaketa horiek justifikatuta egon beharko dute, ez dute proiektuaren funtsezko aldaketarik ekarriko, diruz lagundu daitezkeen gastuei buruz ezarritakoa bete beharko dute eta Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritza oniritzia izan beharko dute.

Bosgarrena.- Eskaerak eta agiriak entregatzeko epea

Eskaerak egiteko epea hogei egun baliodunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betetzeko, erakunde interesdunek, pertsona juridikoak diren aldetik, telematikoki egin behar dute eskaera, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez (Erregistro Elektronikoa Komuna: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/tr-registro-electronico-comun>) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16.4 artikuluan jasotako organoen erregistro elektronikoen bidez.

Erakunde interesdunak, egiten dituzten agiri bidalketa elektronikoen guztietan, pertsona juridikoen bitarteko elektronikoren baten bidez identifikatu beharko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Izapideak nahitaez modu elektronikoa egin behar dituzten pertsona juridikoek bertaratuta egiten badituzte, aurkezpena zuzentzeko eta baliabide elektronikoen erabiliz egiteko eskatuko zaie. Ondorio horietarako, zuzenketa hori egin den eguna joko da eskaeraren aurkezpen datatzat.

Era berean, deialdi honen eranskin gisa jasotako eskaera ereduak bete beharko dira (Arabako Foru Aldundiaren webgunean ere eskuragarri daude).

Eskaera horietan, zehazki I. eranskinean, bertan jasotako informazioaren eta dokumentazioaren benetakotasunari buruzko erantzukizunpeko adierazpen bat erantsiko da.

1. Eskaerekin batera, agiri hauek entregatu beharko dira, ordenatuta eta honela izendatuta:

a) Erakundeak egoitza edo ordezkari Araban edo Trebiñuko enklabean duela egiaztatzen duen agiria.

b) Legez eratuta eta dagokion Elkarte eta Erakundearen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duten agiriak.

c) BEZa (Balio Erantsiaren gaineko Zerga) ordaintzetik salbuetsita egotearen ziurtagiria, zerga administrazio eskudunak emana.

d) Eskaera egiteko inprimakia, I. eranskinaren arabera.

e) Proiektuaren inprimakia, II. eranskinaren arabera.

f) Baldin eta beste dirulaguntza publiko eta/edo pribaturen bat eskatu bada, horien egiaztagiria edo ebazpena entregatu behar dira, eta zenbat diru eskatu den adierazi.

2. Erakunde onuradunek zerga betebeharrak egunean dituztela egiaztatu beharko dute, eta soldatapeko langileak badituzte, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela.

Zerga betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekioei dagokienez, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen Foru Arauak 21.3 artikuluan xedatzen duenaren arabera, erakunde onuradunak eskaera eginez gero, organo kudeatzaileak haren baimena edukiko du zerga administrazioek eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko. Berriaz uko egiten bazaio administrazioak informazio hori jasotzeari, erakunde eskatzaileak ziurtagiriak entregatu beharko ditu.

3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, erakunde interesdunek eskubidea dute Arabako Foru Aldundiak jadanik dituen edo beste edozein administrazio egin dituen agiriak ez entregatzeko. Horrenbestez, administrazioak agiri horiek kontsultatu edo bil ditzake, salbu eta eskatzaileek berriaz ukatzen badute egiaztapen hori egiteko baimena. Kasu horretan, eskatzaileak berak eman beharko ditu agiriak.

Halaber, aurretik edozein administrazioari emandako agiririk ez zaie eskatuko erakunde interesdunei. Ondorio horietarako, erakundeak adierazi beharko du noiz eta zein administrazio organoren aurrean entregatu zituen dokumentu horiek, eta organo instruktoreari eskatu beharko dizkio, salbu eta prozeduran jasota badago erakundearen berriazko aurkakotasuna edo aplikatzekoa den lege bereziak haren berriazko baimena eskatzen duela.

Salbuespenez, baldin organo izapidegileak ezin baditu lortu aurreko apartatuetan adierazitako agiriak, erakunde interesdunari berriz ere emateko eskatu ahalko dio.

4. Eskaerarekin eta justifikazioarekin batera elektronikoki entregatzen diren kopia dirulaguntzak emateko administrazio prozeduraren izapideetarako bakarrik izango dira baliozkoak. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28.7 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, onuraduna izango da emandako agirien egiazkotasunaren arduraduna. Hala ere, Administrazioak beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ahal izango ditu egiaztatutako egitateak eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko, eta erakunde interesdunek Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituzte horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak.

5. Eskabidean edo horrekin batera aurkeztzen diren agirietan akatsik izanez gero edo osorik bete gabe egonez gero, interesdunei hamar egun balioduneko epea emango zaie antzemandako akatsak konpontzeko. Epe hori igaro eta akatsak konpondu ezik, eskatzaileak eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da; horretarako, ebazpena emango da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik.

Seigarrena.- Prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak

1. Prozedura izapidetzeko eskumena Arabako Foru Aldundiaren Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren Euskararen Foru Zerbitzuak izango du.

2. Proiektuak baloratzeko, honako balioespen irizpide hauek hartuko dira kontuan, eta gehenez ere 100 puntu emango dira.

Irizpide hauek aplikatuko dira:

1. Aurkeztutako proiektuaren justifikazioa (gehienez 4 puntu):

Proiektu horrek aipatzen duen lurraldearen edo jarduketa eremuaren udalerrri edo udalerrrien testuinguruaren eta errealitatearen azalpen argi eta zehatza; planteatutako beharra konpontzen

edo hobetzen laguntzea; eta Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 25eko 369/2025 Erabakiaren bidez onetsitako Araban Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Estrategikoaren (2025-2029) estrategia, erronka edo jarduketa ildoen barruan sartzen diren proiektuak adieraztea. Betekizuna izango da genero ikuspegia kontuan hartzea, gutxienez puntu honetan.

2. Proiektuaren kalitate teknikoa (gehienez 20 puntu):

– Jardueren konkretutasuna, argitasuna, zehaztasuna eta plangintza. Gainera, hizkuntza normalizatzeko jarrerak lantzeko edukiak edo metodologiak erabiltzea baloratuko da (gehienez 5 puntu).

– Proiektuaren justifikazioaren, duen helburuaren, metodologiaren, planifikatutako jardueren eta aurreikusitako jarraipenaren eta ebaluazioaren arteko lotura. Proiektuaren koherentzia orokorra (gehienez 5 puntu).

– Epe ertain eta luzera jarduketa prozesu estrategikoak sortzea helburu duten proiektuak. (5 puntu).

– Proiektuaren aurrekontua. Aurrekontuaren xehetasunak, zehaztapena eta proiektuarekiko egokitzapena (gehienez 5 puntu).

3. Proiektuaren eragina (gehienez 10 puntu):

– Publiko hartzailearen profil zehatza eta zenbatetsitako parte hartzaileen kopurua (gehienez 4 puntu).

– Hurbiltzeko eta hedatzeko prozedura, euskararen erabileraren normalizazioan espero diren aurrerapenak, eta sareko lana (gehienez 4 puntu).

– Interseksionalitatea. Ikuspegi interseksionala sartzeari, pertsonen hizkuntza aniztasuna kontuan hartuta (gehienez 2 puntu).

4. Erakundearen egoitza edo ordezkartza Arabako Lurralde Historikoan eta Gasteiztik kanpo (gehienez 15 puntu):

– Erakundearen egoitza Gasteiztik kanpo, Arabako Lurralde Historikoan. (15 puntu).

– Erakundearen egoitza Gasteizko udalerrian, Arabako Lurralde Historikoan. (10 puntu).

– Erakundearen ordezkartza Vitoria-Gasteizko udalerrian. (5 puntu).

5. Jarduera motak (gehienez 51 puntu):

Jarduerak baloratuko dira. Proiektuaren jarduerak mota hauen arabera banakatu behar dira, eta proiektuari dagozkion puntuak gehitu:

1. Euskararen erabilera biziberritzeari dagokionez, hiltunen ezagutza eta aktibazioa sortzen duten proiektuak (honetako jarduera bakoitzeko 8 puntu emango zaizkio proiektuari, gehienez 24 puntu).

2. Euskara erabiltzeko guneak, harremanetarako guneak eta topaguneak sustatzen dituzten proiektuak; baita atzerritarrek eta/edo jatorri atzerritarreko biztanleek hizkuntza normalizazioan parte har dezaten bultzatzeko eta euskara erabiltzeko guneak eta familien gizarteratze jarduerak bultzatzeko proiektuak ere, batez ere ingurune hurbilean, familien hizkuntza ingurunea aberasten lagunduko duten produktuak, jarduerak eta zerbitzuak eskaintzeko, bereziki aisiarekin lotutakoak (honetako jarduera bakoitzeko 6 puntu emango zaizkio proiektuari, gehienez 18 puntu).

3. Euskararen erabileraren arloan ikusgarritasuna, sentsibilizazioa eta hizkuntza indartzeko proiektuak (honetako jarduera bakoitzeko 3 puntu emango zaizkio proiektuari, gehienez 9 puntu).

Aurreko apartatuan ezarritako irizpide bakoitzari dagokion puntuazioa horretarako sortutako haztapen taula batean jasoko da.

Dirulaguntzak banatzeko, puntuazioaren arabera banaketa sistema erabiliko da. Horretarako, bigarren oinarrian adierazitako zenbatekoa zatitu egingo da eskatzaile guztiek guztira lortutako puntuen baturarekin. Horren emaitza puntuaren balioa izango da. Puntuaren balioa eta eskaera bakoitzaren puntu kopurua biderkatzearen emaitza izango da ateratzen den laguntza, baldin eta zenbateko horrek, gainerako diru sarrerak gehituta, ez badu gainditzen jardueraren kostua.

Ez dira kontuan hartuko 35 puntu lortzen ez dituzten eskaerak.

Zazpigarrena.- Dirulaguntzari uko egitea eta ukapen hori jakinaraztea

Diruz lagundutako programaren bat egiteari uko egitea erabaki duten laguntzen erakunde onuradunek, hartarako dituzten arazoak gorabehera, lehenbailehen jakinaraziko dute hari uko egiten diotela, alegia, dakiten bezain laster.

Uko egite horiek Euskararen Foru Zerbitzuari jakinarazi beharko zaizkio, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen (Erregistro Elektronikoa Komuna) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16.4 artikuluan jasotako organoen erregistro elektronikoen bidez.

Zortzigarrena.- Ebazpena

1. Euskararen Foru Zerbitzuak edukiko du prozedura instruitzeko eskumena.

2. Eskaerak Euskararen Foru Zerbitzuak aztertuko ditu, eta balioespen batzordeari proposamenak egingo dizkio. Batzorde horren burua Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Euskararen Foru Zerbitzuaren burua eta Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari. Idazkaria Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren burua izango da; horrek hitza edukiko du, baina botorik ez.

Proiektuak ondo baloratzeko, instrukzio organoak datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu ematen zaizkion dokumentuei buruz.

Balioespen batzordeak, egindako eskaerak deialdian finkatutako irizpideekin alderatu eta Euskararen Foru Zerbitzuak egindako azterketaren ondoren, txosten bat egingo du, ebaluazioaren emaitza eta, hala badagokio, eskaeren lehentasuna zehazteko.

3. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik; izan ere, erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak bakarrik hartuko dira kontuan ebazpenean.

4. Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du, balioespen batzordeak proposatuta, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde onuradunek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

5. Ebazpena baiezkoa bada, ebazpenean honako hauek adieraziko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, eragindako programa edo jarduera, entregatu beharreko agiriak eta dirulaguntza emateko baldintzak. Gainera, hainbanaketarik gertatuz gero, gutxitu beharreko zenbatekoa zehaztu beharko da. Kasu horretan, aurrekontuaren justifikazioa proportzio berean murriztu ahal izango da. Halaber, berariaz adieraziko da gainerako eskaerak ez direla onartu, eta zergatik ez diren onartu.

6. Dirulaguntza ematen edo ukatzen dien ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatzen duen moduan.

7. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, aukerako errekurtsioa jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera.

Bederatzigarrena.- Emandako dirulaguntzak ordaindu eta justifikatzea

1. Ordainketa era honetan egingo da:

– Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 60, justifikatu beharreko aurrerakin moduan, emandako ebazpenaren egunetik aurrera ordainduko da.

– Gainerakoa ordainketa bakarrean ordainduko da, egindako gastuak behar bezala justifikatu ondoren. Azken ordainketa horri aurreko paragrafoaren “aurrerakinaren” kenketa aplikatuko zaio, eta gastu guztien justifikazioa egiteko epea 2026ko abenduaren 1ean amaituko da.

Dirulaguntza justifikatzeko jakinarazitako gastuak ordaindu izana frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza.

2027ko otsailaren 12a baino lehen, dirulaguntza justifikatzeko gastuen ordainketa egiaztatzen duten agiriak entregatu beharko dira.

Erakunde onuradunak berariaz baimentzen badu, instrukzio organoak 190 eredu eskatu ahal izango du, hau da, atxikipenen eta konturako diru sarreraren urteko laburpena. Baimenik ematen ez bada, erakunde onuradunak agiri horiek entregatu beharko ditu, PFEZren 110 ereduarekin, atxikipenekin eta konturako diru sarrerekin batera, V. eranskinaren justifikazioan.

2. Gastuak frogatzeko, erakunde onuradunek justifikazio kontu erraztua (IV. eranskina) entregatu beharko dute, hain zuzen ere hauetan arautzen dena: 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoa, 28. artikulua 1. eta 2. zenbakiak; eta Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretua, Diputatu Nagusiaren Sailak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onesten dituenak.

Nahitaezkoa izango da:

– Jardueren memoria bat betetzea, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azaltzen dituenak (III. eranskina).

– Programa bakoitzaren gastu guztien zerrenda sailkatua, hau da, horien aurrekontu osoa; zerrendan jarri beharko dira hartzekoduna, gastuen agiria edo faktura, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketaren data.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak. Zenbatekoa eta jatorria adierazi beharko dira.

– Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren soberakinen kasuan, baita horietatik eratorritako interesena ere.

Bakar-bakarrik entregatu beharko dira fakturak edo agiri baliokideak, baldin eta, banaka edo multzoka, gastu kontzeptu bererako, eta hirugarren edo hornitzaile berarekin lotuta, 1.000,00 euro gainditzen badute (BEZa aparte), eta haiek ordaindu direlako frogagiriak.

Organo izapidegileak egokitzen dituen dokumentu, argibide, froga-agiri eta faktura guztiak eskatu ahal izango dizkie erakunde onuradunei, dirulaguntza dagokion xederako ez besterako erabili izanaren arrazoizko ebidentzia lortzeko.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagirik:

- Jaulkitzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

PFEZaren (pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei buruzko zerga araudia eta fakturatzeko betebeharren arloko araudia betetzen ez dituzten fakturak eta ordainagiriak ez dira onartuko gastuen frogagiri gisa.

Fakturak ordaindu direla egiaztatzeko agiriei dagokienez, ordainketaren frogagiri hauek onartuko dira:

- Fakturak, enpresa jaulkitzailearen zigiluarekin, ordainduta daudela adierazita.
- Bankuko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna.
- Fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertuko dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak.
- Kontu korronteen libretak, mugimenduak ageri dituztenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak.
- Erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gunee-takoak, autobideetakoak, bidai txartelak eta abar).
- Fakturarik eragiten ez duten gastuei dagokienez, gastua egiaztatzen duten froga balioko agiriak.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

3. Jasandako BEZaren kuotak diruz laguntzeko moduko gastu moduan konputatzeari begira, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren ebazpena edo zerga egoitza daukaten lurraldeko zerga administrazioarena entregatu beharko dute, zeinean BEZaren Foru Arauaren 20.hiru artikuluan jasotzen den erakundearen izaera soziala aitortzen zaion, arau horren 20.bat artikuluan 12. eta 14. apartatueta jasotzen den zergaren salbuespena aplikatzeari begira.

4. Egindako langileen gastua justifikatzeko, 2. puntuan zerrendatutako agiriez gain, gastuen taula bat eta erakunde onuradunaren izenean jarduten duen pertsonaren idazki bat eman beharko dituzte, V. eranskinaren arabera, atxikitako langileak, langileen dedikazioa eta kostuak ziurtatuko dituenak. Halaber, langile horiei dagozkien nominak eta Gizarte Segurantzaren LZN (Langileen Zerrenda Nominala) eta KLO (Kotizazioen Likidazioaren Ordainagiria) ereduak entregatu beharko dituzte zuzeneko kontratazioaren kasuan, eta, beste erakunde baten azpikontratazioaren kasuan, fakturak.

– Langileak kontratatu dituzten programetan, kontratatutako pertsonak euskaraz badakiela egiaztatzen duen agiria (gutxienez, batxilergoa euskaraz egin izana edo B2 maila edo baliokidea egiaztatuta izana, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera).

6. Frogagiriak elektronikoki entregatu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez (Erregistro Elektroniko Komuna: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/tr-registro-electronico-comun>) edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16.4 artikuluan jasotako organoen erregistro elektronikoen bidez.


Ematen diren kopiek dirulaguntzak emateko administrazio prozedura izapidetzeko bakarrik balioko dute. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 28.7 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuraduna izango da emandako agirien egiazkotasunaren arduraduna. Hala ere, Administrazioak beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ahal izango ditu egiaztatutako egitateak eta entregatutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko, eta interesdunek Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituzte horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak.

7. Dirulaguntza ezingo da ordaindu harik eta pertsona edo erakunde onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituen arte edo itzulketa bidez zorra kitatzen den arte.

Hamargarrena.- Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

Eranskinak era digitalean eskuratu ahalko dira webgune honetan: www.araba.eus.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Euskararen erabilera sustatu eta sozializatzeko irabazi asmorik gabeko elkarte, guraso elkarte, guraso federazio, kirol elkarte eta kirol federazioen diru-laguntzaren eskaera orria. (I. eranskina)</p> <p style="text-align: center;">2026</p> <p>Solicitud de subvención de asociaciones sin ánimo de lucro del ámbito de la cultura o del ocio y tiempo libre, federaciones deportivas, asociaciones de federaciones deportivas, asociaciones de padres y madres de alumnos/as, asociaciones deportivas y federaciones de asociaciones de padres y madres de alumnos/as, para el desarrollo de proyectos y/o actividades destinadas al fomento del uso y socialización del euskera (Anexo I)</p>
<p>Berdintasun, Euskara eta Gobernantza saila</p>	<p>Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza</p>

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo			Identifikazio zk. ■ Nº identificativo	Sexua-Generoa / Sexo-Género		
<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro		<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre	<input type="checkbox"/> Ez binarioa No binario
Izena edo sozietatearen izena ■ Nombre			Lehen abizena ■ Primer apellido	Bigarren abizena ■ Segundo apellido		
<input type="text"/>			<input type="text"/>	<input type="text"/>		
Telefonoa ■ Teléfono		Mugikorra ■ Móvil	Posta elektronikoa ■ Correo electrónico			
<input type="text"/>		<input type="text"/>	<input type="text"/>			

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOARI LOTUTAKO HARREMANETARAKO DATUAK

DATOS DE CONTACTO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN ELECTRÓNICA

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jakinarazpen elektronikoak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egingo dira. Hartzailerek egoitza elektroniko horretako "nire jakinarazpenak" atalean eskuratu ahal izango dituzte.

Jakinarazpen elektronikoak eskuratu ahal izango dituzte hartzailerek eta/edo, hala badagokio, haiek gaitutako pertsonak.


Erakunde eskatzaileak gailu elektroniko bat eta/edo helbide elektroniko bat identifikatu ahal izango du, abisuak bidaltzeko balioko duena, egoitza elektronikoan jakinarazpen bat eskuragarri jarri dela jakinaraziz. Hala ere, ohar hori egiten ez bada ere, jakinarazpena guztiz baliozkoa izango da:

Conforme a lo previsto en el artículo 43.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, las notificaciones electrónicas se practicarán por el sistema de comparecencia en sede electrónica de la Diputación Foral de Álava. Las personas destinatarias podrán acceder a ellas en el apartado "Mis notificaciones" de dicha sede electrónica.

Podrán acceder a las notificaciones electrónicas las personas destinatarias de las mismas y/o, en su caso, las personas habilitadas por ellas.

La entidad solicitante podrá identificar un dispositivo electrónico y/o una dirección de correo electrónico que servirán para el envío de los avisos informándole de la puesta a disposición de una notificación en la sede electrónica. No obstante, la falta de práctica de este aviso no impedirá que la notificación sea considerada plenamente válida:

Posta elektronikoa ■ Correo Electrónico	Telefono mugikor zenbakia ■ Número de teléfono móvil
<input type="text"/>	<input type="text"/>

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Euskararen erabilera sustatu eta sozializatzeko irabazi asmorik gabeko elkarte, guraso elkarte, guraso federazio, kirol elkarte eta kirol federazioen diru-laguntzaren eskaera orria. (I. eranskina)</p> <p style="text-align: center;">2026</p> <p>Solicitud de subvención de asociaciones sin ánimo de lucro del ámbito de la cultura o del ocio y tiempo libre, federaciones deportivas, asociaciones de federaciones deportivas, asociaciones de padres y madres de alumnos/as, asociaciones deportivas y federaciones de asociaciones de padres y madres de alumnos/as, para el desarrollo de proyectos y/o actividades destinadas al fomento del uso y socialización del euskera (Anexo I)</p>
<p>Berdintasun, Euskara eta Gobernantza saila</p>	<p>Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza</p>

ESKAERAREN DATUAK ■ DATOS DE LA SOLICITUD

<input type="checkbox"/>	Erakunde eskatzaileak soldatapeko langileak dauzka ■ La entidad solicitante tiene personal asalariado a su cargo
Aurkeztutako aurrekontua (Aurrekontua / Proiektuaren guztizko kostua) Presupuesto presentado (Presupuesto / Coste total del proyecto)	€
Ustekozko sarrerak (Jarduerak sortutako sarrerak aurreikusiz gero baino ez bete) Ingresos previstos (Únicamente cumplimentar si se prevén ingresos generados por la actividad)	€
Eskatutako zenbatekoa (AFari eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa) Importe solicitado (Importe de subvención solicitada a la DFA)	€
Jardueraren / Programaren izena ■ Denominación de la actividad / Programa	Aurrekontua ■ Presupuesto
	€

BANKU DATUAK ■ DATOS BANCARIOS (2)


Bankua ■ Banco	
IBAN	SWIFT

ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA ■ DECLARACIÓN RESPONSABLE

("x" batez markatu dagokiona)

(Márquese con una "x" lo que corresponda)

Ordezkatzen dudana erakundeak inguruabar hauetako bat betetzen duela:		Que en la entidad a la que represento concurre(n) alguna(s) de las circunstancias siguientes:
Berdintasun Plana du edo entitateak bere barne dokumentazioan berdintasuna lortzera bideratutako jarduera espezifikoak sartu ditu.	<input type="checkbox"/>	Existe un Plan de Igualdad o la entidad incorpora acciones específicas en materia de igualdad en su documentación interna (reglamento de régimen interno, ideario, etc.)
Euskara Plana du edo entitateak bere barne dokumentazioan hizkuntza-normalkuntza lortzera bideratutako jarduera espezifikoak sartu ditu.	<input type="checkbox"/>	Existe un Plan de Euskera o la entidad incorpora acciones específicas en materia de normalización lingüística en su documentación interna (reglamento de régimen interno, ideario, etc.)
Erakundearen zuzendaritza batzordeko kideen artetik, ehuneko 50ek euskaraz ulertzen dute.	<input type="checkbox"/>	Existe representación equilibrada en la Junta Directiva de la entidad en la cual un 50 por ciento de las personas entienden euskera.
Euskara edota euskara eta gaztelania erabiltzen du agiri eta euskarrietan.	<input type="checkbox"/>	Utiliza el euskera o el euskera con el castellano en sus documentos y soportes.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Euskararen erabilera sustatu eta sozializatzeko irabazi asmorik gabeko elkarte, guraso elkarte, guraso federazio, kirol elkarte eta kirol federazioen diru-laguntzaren eskaera orria. (I. eranskina)</p> <p style="text-align: center;">2026</p> <p>Solicitud de subvención de asociaciones sin ánimo de lucro del ámbito de la cultura o del ocio y tiempo libre, federaciones deportivas, asociaciones de federaciones deportivas, asociaciones de padres y madres de alumnos/as, asociaciones deportivas y federaciones de asociaciones de padres y madres de alumnos/as, para el desarrollo de proyectos y/o actividades destinadas al fomento del uso y socialización del euskera (Anexo I)</p>
<p>Berdintasun, Euskara eta Gobernantza saila</p>	<p>Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza</p>

AGIRIAK (Erantsitako dokumentazioa adierazi)
DOCUMENTACIÓN (Señalar la documentación que se adjunta)

OHARRAK: Agiriak lehendik aurkeztuta badaude, adierazi non eta noiz aurkeztu ziren.
OBSERVACIONES: Si la documentación está presentada, indicar dónde y cuándo.

			OHARRAK ■ OBSERVACIONES
Araban edo Trebiñuko Enklabeen erakundeak egoitza o delegaritza daukala frogatzen duen agiria.	Documento que acredite que la entidad tiene sede o delegación en Álava o en el Enclave de Treviño.	<input type="checkbox"/>	
BEZa ordaintzetik salbuetsitko kasuetan, ziurtagiria aurkeztu behar dute, dagokien zerga administrazioak emana.	En casos de exención de IVA, certificado expedido por la Administración tributaria competente.	<input type="checkbox"/>	
I. eranskinaren araberako eskaera orria.	Formulario de solicitud según Anexo I.	<input type="checkbox"/>	
II. eranskinaren araberako proiektuaren inprimakia.	Formulario del proyecto según Anexo II.	<input type="checkbox"/>	

ADIERAZPENAK / DECLARACIONES


Adierazten dut eskaera honetan jasotako informazio eta dokumentazio guztia benetakoa dela.	<input type="checkbox"/>	Declaro que toda la información y documentación contenida en esta solicitud es auténtica.
Aitortzen dut ordezkatzen dudana erakunde honek egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta baimena ematen diet Arabako Foru Aldundikoari Gizarte Seguratasun eta zerga betebeharrekin zerikusia duten guztia egiaztatzeko.	<input type="checkbox"/>	Declaro que la entidad a la que represento se encuentra al corriente con las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social y autorizo a la Diputación Foral de Álava a comprobar la situación en relación con las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

BAIMENA / AUTORIZACIÓN

Espresuki baimena ematen dut AFAk zerga datu hau bil ditzan: 190 erudia, atxikiipenen eta konturako sarrerren urteko laburpena.	<input type="checkbox"/>	Autorizo expresamente a que la DFA recabe los datos tributarios del modelo 190, resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta.
---	--------------------------	---

AURKARATZEAK / OPOSICIONES

Berariaz aurka egiten diet AFAk eskatzeari zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen ziurtagiriak.	<input type="checkbox"/>	Me opongo expresamente a que la DFA recabe los certificados de estar al corriente con las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.
--	--------------------------	--

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Euskararen erabilera sustatu eta sozializatzeko irabazi asmorik gabeko elkarte, guraso elkarte, guraso federazio, kirol elkarte eta kirol federazioen diru-laguntzaren eskaera orria. (I. eranskina)</p> <p style="text-align: center;">2026</p> <p>Solicitud de subvención de asociaciones sin ánimo de lucro del ámbito de la cultura o del ocio y tiempo libre, federaciones deportivas, asociaciones de federaciones deportivas, asociaciones de padres y madres de alumnos/as, asociaciones deportivas y federaciones de asociaciones de padres y madres de alumnos/as, para el desarrollo de proyectos y/o actividades destinadas al fomento del uso y socialización del euskera (Anexo I)</p>
<p>Berdintasun, Euskara eta Gobernantza saila</p>	<p>Departamento de Igualdad, Euskera y Gobernanza</p>

Oharra (1)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetze aldera, jakinarazten dizugu zuk ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulatasuneko T95 BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILAK IZAPIDETUTAKO DIRULAGUNTZAK KUDEATZEA, fitxategian sartuko direla. Fitxategi horren tratamendua Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera sustatzeko jarduerak kudeatzeko egiten dira.

Zure datuen konfidentziaztasuna bermatzen dugu, eta ez zaizkie hirugarrenei jakinarazten legez gaitutako kasuetatik kanpo.

